



PRENTSA OHARRA

Aste Santurako esperientziak Plazaola Mendialdean: Natura, Kultura eta Abentura Familia Guztientzat

Nafarroa, 2025eko apirila – Aste Santu honetan, Plazaola Mendialdea eskualdea helmuga ezin hobe da natura, kultura eta tradizioak modu aktiboan eta familian gozatu nahi dituzten guztientzat. Basoek, mendiek eta xarma bereziko herriek osatutako paisaietan barneratuta, eskualdeak turismo-eskaintza zabal eta anitza aurkezten du.

Esperientzia horiek eskaintzen dituzten enpresei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Plazaola Turismo Partzuergoaren webgunea bisita daiteke: www.plazaola.eus

Adin guztietarako natura eta abentura jarduerak

- **Mendukiloko Leizea (Astitz-Larraun):** Aralarko mendilerroaren bihotzean bidaia liluragarria, 540 metroko lurpeko ibilbide irisgarria adin guztientzat.
- **Beigorri Abentura Parkea (Lekunberri):** Tirolinak eta zuhaitzen arteko zirkuituak adin guztientzat diseinatuta, martxotik urrira arte.
- **Astotrek (Leitza):** Astoekin gidatutako ibilaldiak Bide Berdean eta landa-bideetan zehar, familientzat aproposak.
- **Equino Aukera (Intza-Araitx):** Zaldi-jarduerak naturan, errespetuzko ikuspegiarekin eta familientzat nahiz taldeentzat egokituta.
- **Uxama (Larraintzar):** Mindfulness ibilaldiak, basoko bainuak eta onddoen inguruko ibilbideak harizti eta pagadietan barrena.
- **Yugen Green (Arruazu):** Basoko bainuak eta Turismo Erregeneratiboa naturguneetan.
- **Aizti (Bakaiku):** Ingurumen-hezkuntza eta tokiko flora-faunari buruzko tailerrak. Aste Santuko bisita gidatuak Plazaolako Bide Berdean.
- **Mirua (Lakunza):** Naturalista adituen bisita gidatuak, inguruko biodibertsitatea ezagutzeko.
- **Curly Creek Ranch (Oskotz-Imotz):** Imotzeko haranean dagoen baserri batean animaliekin, naturarekin eta esperientziekin kontaktua.
- **Plazaola Biziz Bizi Bike (Lekunberri):** Bizikletak alokatzeko aukera Lekunberriko geltokiko bagoian, Plazaolako Bide Berdearen ondoan.
- **Biraka (Zizur Nagusia):** Bizikleta elektrikoan alokairua Plazaolako Bide Berdea gozatzeko.
- **Plazaola Udal Kiroldegia SPA (Lekunberri):** Kirol-instalazio bikainak, igerileku klimatizatua eta spa.



Kultura bizia, gastronomia eta tokiko tradizioak

- **Peru Harri Harriaren Museoa (Leitza):** Harria eta euskal herri-kirolak ardatz dituen parke tematiko paregabea.
- **Ezkurdi Erleen Museoa (Eltso-Ultzama):** Erleen mundua ezagutzeko espazio interaktiboa eta didaktikoa.
- **Lacturale Baserria (Etxeberri-Arakil):** Esnearen ekoizpen-prozesu osoa ezagutzeko bisita gidatua, familia-baserri batean.
- **Gaztandegi tradizionalak (Uztegi-Araitz, Goldaratz-Imotz, Arruazu, Leitza, Etxarri-Larraun):** Gazta artisau eran egiten duten artzain eta artzain anderekin bisita gidatuak.
- **Lezaeta Tailerra (Lezaeta-Larraun):** Gozogintza eta ogi ekologikoaren artisau-esperientziak; tailerrak eta zuzeneko salmenta barne.
- **Larruaren Txokoa (Eraso-Imotz):** Larruaren erabileraren eta artisautza-prozesuaren historiari buruzko bisita gidatu interesgarriak.
- **Domina Betizu Zentroa (Goizueta):** Betizu arraza hazten duen familia abeltzain tradizional baten bisita. Behiek urte osoan askatasunean eta elikadura ekologikoarekin bizitzen dute.
- **Naturquad Zentroa (Arraitz-Ultzama):** Nafarroako natura eta paisaiak quad-ibilaldien bidez ezagutzeko aukera.
- **San Migel Aralar Santutegia:** Aralarko mendilerroan kokatutako Nafarroako erromanikoaren harribitxia. Fedearen, historiaren eta naturaren uztarketa paregabea.

Etxera itzulera: OIT eta Plazaola Turismo Partzuergoa jatorrizko egoitzara itzuli dira

Plazaola Turismo Partzuergoa eta Lekunberriko Turismo Bulegoa (OIT) berriz ere kokatuta daude Plazaolako Estazioan, Lekunberrin. Hori posible izan da Nafarroako Gobernuak Turismo Zuzendaritzak egindako lanen ondorioz, energia-eraginkortasuna hobetzeko helburuarekin, eta Next Generation EU funts europarren laguntzarekin.

Azken hilabeteetan, Larraungo Udaletxean egon dira aldi baterako, eta eskerrak eman nahi dizkiete Udalari eta bertako langileei, haien lankidetzaren eta harrera beroagatik, eskualdeko turismoaren zerbitzua etenik gabe mantentzea ahalbidetu baitute.

Lekunberriko Turismo Bulegoa (OIT)

📍 *Helbidea:* Plazaolako Estazioa, Plazaola kalea 21, 31870 Lekunberri

☎ *Tel:* 948 507 204 · ✉ oit.lekunberri@navarra.es

Bulego berean Plazaola-Mendialdeko produktuak eta bestelako *merchandising* artikulak ere eskuragarri daude.

ℹ Informazio gehiago: <https://plazaola.eus>